

Beltza: jarrera postmodernoa hausturaren eta kolaborazioaren artean


Gauza bat erantsi nahi nuke, oso labur, bi ohar egiteko. Lehena, postmodernismoari buruz.

Postmodernismoaren haustura positibotzat joan da, batez ere hemen. Berriz errepikatuko dut lehen aipatu dudan terminologia prolema bat. Hego Euskadiko modernoan jokaera guztiz postmodernoa dela. Hala eta guztiz ere, modernismoaren eta postmodernismoaren artean bada gauza oso inportante bat.

Cohn-Bendit, kontutan hartzeko kaso argigarri bat

Hemen esana izan da, arrazoiez, gizarte mugimenduak orohar mugimendu postmodernoak dira eta gehienetan progresista edo iraultzaile edo nahi dena. Joxek esan du ekologistak derrigor egon behar duela Estatutik kanpo. Ni ez naiz filosofoa, ezta politikoa ere, politikari begiratzen diot batez ere. Eta orain Frantzian zera dago modan, Cohn Bendit-en telebistako emankizunak. Berak liburu ezagun bat idatzia du, *«Nous avons tant aimée la Revolution»*, eta Frantziako telebistatik pasatzen ari dira 68ko protagonisten bizitza eta ideiak.

Cohn-Bendit da, hain zuzen, Alemaniako Berdeen partaidea. Berdeen jomuga nagusia gobernuan parte hartzea da, eta bere lagun bat, hain zuzen, ministro



da Hessen oker ez banaiz. Nolabait 68ko iraultza haustura bat izan da, modernismo eta postmodernismoaren artean. Han pasa gara ideologia rigorista eta hertsietatik, marxismo-leninismo iraultzaileetatik, holako haustura anarkiko eta nolabait pertsonalistetara. Berak argi eta garbi agertzen du bere liburuan eta bere emankizunetan, bere xede nagusia dela borroka armatuan ari direnei holako jarrera irrazionala utz araztea, demokrazian sar daitezen, zeren azken funtsean Mendebaldeko demokraziak, bere huts guttiekin, eskaintzen dio gizakiari, pertsonari, bere pertsonalitatea errealizatzeko parada historiko hobere-na, mundutan zehar eta historian.

Hori jarrera postmodernoa da, eta jarrera postmoderno honek haustura suposatzen du alde batetik, eta beste alde batetik kolaborazioa. Hori da Cohn-Bendit-ek egina, ezkertiar batek egina. Gehien-koak ez du hola egiten.

Balio modernistak agertzen ditu postmodernoak, baina karga subertsiborik gabe

Orduan, aipatua izana da modernismoak artean batez ere suposatzen duela haustura. Eta egia da, moldeekin, erduekin, tradizioarekin, positibotzat joenezakeen hori. Baina postmodernismoaren jite nagusia ez da haustura hori, postmodernismoaren jite nagusia, artean adibidez, halanola teatroan edo bes-tetan, zera da: balio modernistak agertzen direla baina karga subertsiborik gabe. Edozer egin daiteke gaur egunean: bilutsirik ageri, larrua jo eszenaren gainean, edo jendea tintaz-eta zikindu... berdin zaio, hori da kolpe interesgarri bat, besterik gabe.

Azken funtsean, modernismo eta postmodernismoaren artean diferentzia neretzat politika mailan zera da: modernismoak badituela oraindik helburu argiak, progresoari lotuta, egia da, baina postmodernismoa da frantsesez esaten dutena *«Un consentement mou à la démocratie»*, halan esaten dute hango ikerleek. Hau da: demokrazia onartzen da baina kontsentsuaren bidez, ez da prolema, *«bai, hola izan behar du, segi aurrera eta kitto»*. Eta hola egiten delarik, azken finean bada kolaboraziorako oso jarrera garbia.

Eta zergatik Euskal Herrian hain modernoak diren politikariak, politikan, Estatu justifikatzen dutenak, Lege Antiterrorista, tortura, etabar, zergatik dira hain postmoderno beren konportaeretan? Hau da, hain progre, eta era berean hain pasota, *«ba, hori demasie, hori irrazionalkeria, tripetatik aterea da...»*, diote *«arrazional izan behar da»* baina aldi berean pasota dira gizartean. Zergatik? Nere ustez Estatu Espainola nahiko atzeratua dabilelako. Estatu Espainolak ez du oraindik burutu Estatu moderno bilakatzearen eginkizuna. Eta politikan ari direnek, nahi ta

nahi ez modernitatea erabili behar dute beste estatu-egindakoa gauzatzeko, baina era berean ari dira jarrera apolitikoak eta antipolitikoak, baina politikoak zerbait kanbiatezeko delarik, zabaltzen.

Hori lehen oharra.

Ideologia, sakrifizioaren etika eta Estatu-Nazio helburua krisian

Gure borroka iraultzaileari begiratzen badiot, aitortzen dut borroka iraultzailea Euskal Herrian zer den definitzea konplexoa dela. Denetarik bada, eta nahasia denez gero, sailkatzen entseatuko naiz. Hau da, inbentario bat egiten badugu holako modernitate-postmodernitate prolemari buruz, zer dugu retro, zaharra, kondentatzen gaituena nolabait? Lehenik, ideologia orohartzailen behin eta berriz aipatzea.

Lehendabiziko problema, ez du ematen gaur honek indar handirik ematen duenik, nahiz eta batzuek esan hori pasakorra dela eta marxismo-leninismo garbi eta hutsa itzuliko dela hemendik bost edo hamar urte pasata.

Bigarrena, sakrifizioaren etika, iruditzen zait oso zaharkitua dela, moralki eta pertsonalki ez bakarrik errespetagarria, baita mirezgarria ere, izan arte, gizarre mailan iruditzen zait zaharkitua.

Hirugarrena, gure borrokari ematen diogun Estatu-Nazionaren iduria. Behar bada, holako irudia bai zaharra dela eta askatasuna lortzeko Estatu bat sortzea, ez bakarrik gauzatzen ez den gauza bat dela baizik eta jendea kontra jartzen duela. Honek ez du esan nahi Estatu Espainola goraiatu behar denik, hori besteek egiten dute, horretan oso moderno dira.

Justizia, iraultza eta egunerokotasuna lotuko dituen ideologia falta

Bukatzeko, biolentziari lotzen diogun esanahi historizista. Lehen ere aipatu dut hori, ez naiz berriz bueltatuko horren gainean. Beraz, zertan gara «branchés»? Ez dakit nola esaten den hori euskaraz, «branché» egotea lotuta egotea da, konektatua, baina kable bidez, behar den bezala ibiltzea.

Lehen, batetik, gure minoritate kontzientzia, zeren egia da postmodernismoaren elementu nagusia dela erreibindikatzea txikiaren parte, norbera norbait izateko nahi duen bezalakoxea, eta guk dugun minoritate linguistikoko kulturalaren kontzientzia oso inportantea iruditzen zait hemendik aurrera behar den bezala jotzeko.

Beste alde batetik, razionalitatea aipatzen da, baina postmodernismoan askoz inportanteagoa da sendukzioa. Hau da, jendeak parte har dezan inportantea ez da holako demostrazio logiko-razionala, baizik eta jendeak tripetan senti dezan zer egin behar duen. Gure artean, tribuaren kontzeptua oso po-


lita da nolabait, oso arriskutsua baztertzen gaituelako, baina oso inportantea gure artean sortzen dituen loturak oso sakonak eta esanahitsuak direlako.

Nolabait, euskaraz erreibindikatzen dugularik, eta euskaraz zerbait egin behar dugularik, orain arte behintzat kontrakulturala izan da, Estatuak ukatu bait dizkigu bideak guk nahi dugun bezala euskaraz bizi gaitezen.

Azken elementua, oso inportantea da norberaren hedapenari ematen zaion inportantzia ere gauzatzea, baina minoritatearen zentzuari lotuta eta, badakit honetan ez naizela batere moderno, justiziarren eta iraultzaren kontzeptuei oraindik lotuta. Hor ikusten dut nik prolema nagusia, zeren eta oraindik justizia, iraultza eta egunerokotasuna lotuko dituen ideologia orohartzailerik, zentzu moderno batean, oraindik ez bait dago. Hori agertu baino lehen nahiko maingua ibiliko gara.

Joxe Azurmendi: postmoderniak guri baino etsaiari kalte gehiago egiten dio

Nik ere ohar pare bat egin nahi nuke. Ez da negatiboa zure azterketa [Beltzari begira] gogorra delako, baina gogorra bada. Ni ere ez naiz ez moderno eta ez postmoderno, ni hezkuntzaz, adinez gustoz eta denez, gehiago antigoalekoa naiz. Esan nahi dut honekin, ni ez naizela postmodernian omen dabil-tzan gazteak epaitzeko inor, zeren eta gainera oso gutxi ateratzen bait naiz kaleetara ere. Hala ere, bi ohar txo, teorizazioaren mailan, beste guztiak aparte utzita.



«Haiek» ere beren proiektu espainolista azaltzeko zailago daukate

Postmoderniak guri zailtasun asko sortzen badigu, nik uste etsaiari askoz gehiago sortzen diola. Eta guxienez nik berrogei bat urte bete artean lasai-lasai esaten zitzaizkigun gauza asko, gaur nekez esan daitezkeela eta ez direla esaten ere. Adibidez, abertzaletasuna gaur kritikatzeko da, edo ezker abertzalea, konbatitzen da zuzenki, irrazionalak omen direlako planteamendu horiek, eta bere defekto guztiak atez atakatzeko zaio.

Baina Estatu Espainola progresoarean eta ez dakit zeren ardatza bezala ez da defendatzen, oso zaila da, hemen behintzat, lurralde honetan. Eta berek dogma bezala eduki dituztenak, berdin Espainiaren kontzeptua eta, ez bakarrik frankismo garaian, sozialismoak berak Errepublikara arte erabili izan duen gauza pila bat, «hizkuntza bakar bat nahi dugu» eta abar, hori desagertu egin da.

Egin horrela egiten da, baina teorizazio mailan guxienez ez dago erabiltzerik hemen lehen erabili izan den arrazoipide asko. Hori gure alde dago guxienez. Alegia, gu erasotzeko oraindik indartsu jarraitzen dutela, baina beren buruak azaltzeko, beren proiektu espainolista edo nahi bada afrikantarekin askoz zailago daukate beraiek ere. Gu atzean bagaude, berak atzerago.

Kaos bat dago, baina gero borroka ere hortik ateratzen da

Bigarrena, gazte jendea ikusten dudanean hor saltaka, dantzaka eta tontakeriak egiten, errespeto guztiarekin esanda, iruditzen zait ezker abertzalea dela oraindik hemen postmoderno edo ezdakitzeko txisme horretan zerbait animoso eta animagarri kalera ateratzen duen bakarra, eta estilo, jarrera eta sentimendu-fantasia-errebeldia postmoderno guzti horiek de facto gazteria horretan aurkitzen direla.

Honek ez du esan nahi gazteria horrek halako pentsamendu bat daukanik; esan nahi du horrelakoa dela, eta dirudienez erakarmena ere horrek sortzen diola baita ere jendeari, eta borrokarako ere jendea berriro mugimendu horretan elkartzen dela. Gure denboran ez zen horrela. Klandestinitatea zelako eta abar, norbait elkartzen zitzaion mugimendu bati oso bide bihurrietatik.

Gaur badirudi erakarmen bideak edo lagunarte berriak beste hauek direla, «statuto di kulo» eta zirkoak etabar. Esan nahi nuena zen, igoal piska bat optimistago ere izan daitezkeela. Badago kaos bat, niretzat kaos bat dena, ez dakit post, extra, sub ala antimoderno, baina gero borroka ere hortik ateratzen da.



J. Azurmendi:
«Iruditzen zait ezker abertzalea dela zerbait animoso eta animagarri kalera ateratzen duen bakarra».

Jendarteko galdera

Hemen badirudi denon aldetik modernotasunaren aurkako politika bat dagoela. Modernotasunari egiten zaio kritika bat, eta iruditzen zait, piska bat historia eginaz, ea asko eta asko ez ote goazen modernotasun horretara.

Orain dela urte batzuk esaten zen modernoa zela hauteskundeetan parte hartzea, eta piskanaka indar politiko guztiak joan dira hauteskundeetan parte hartzera. Esaten zen parlamentuan parte hartzea modernoa zela, negoziatzea modernoa zela; orduan beste aldetik esaten zen ez zela negoziatu behar, eta orain esaten da negoziatu behar dela. Badirudi bi urte edo lau urte atzeragotik gabiltzala.

Ez dakit esplikatzen naizen. Modernotasunari kritika egiten diogu, eta berdin erropa, jazkera eta ohiturekin... Manifestazio batera joanez gero, adibidez, jo dezagun talde politiko guztiak daudela manifestaldi horretan, orokorra dela; zuk badakizu erropatik bakarrik zein non dagoen, nahiz eta taldeak sinbolorik gabe joan: praka bakeroekin eta... «borrokas», txaketa larruzkoak eta ezdakit nolako prakak eta... «arrazoia dutenak», eta hola.

Gu ari gara orain modernitatearen kontsigna horren kontra. Ez al zaigu gertatuko, edo ez al da gertatuko, hemendik denbora labur batean berdin jokatzea, beste gauza askotan berdin jokatu dugun bezala? Beltzari galdetzen diot.

Beltza: ez da aski kontutan hartzen zapalkuntzak erreflexu insolidarioak sortzen dituela

Horri erantzuna Herri Batasunak eman beharko lioke, ez nik. Ni ez naiz inoiz Herri Batasunakoa izan, eta ez naiz inoiz KAS programaren alde izan, eta beti egon naiz abstentzioaren alde, horretan oso «karroza» gelditu naiz.

Hala ere, ez dira konfunditu behar jarrera politiko partzialak edukinarekin. Behar bada, HBk instituzioetan parte hartzen badu, negoziaketaren alde hitzegiten badu, eta abar, eta gainera orain ETAk Costa del Sol-en bonbak jarrita, esan genezake egiten dutela poli-miliekin duela lau zapabost urte egindakoa, hori esan genezake, eta hortik ikusita egia dirudi. Hala ere, bada edukin politiko bat atzean.

Neretzako, Euskadiko Ezkerraren prolema nagusia da bere modernitate edo postmodernitate nahasi honetan nolabait Mendebaldeko proiektu politikoa- ren barnean sartu direla. Estatu Espainola nahi dute, berrengingotuta, eta Estatu Espainol honetan borroka subertsiboa baztertua nahi dute, hori iruditzen zait bere razionalismo eta gainerako gauzen azpian.

Herri Batasuna formulazio zaharkituei lotuta

Lehen Joxek aipatu du nazionalismo espainolak ez gaituela erasotzen lehen bezala, esanez eta «*hemmen hizkuntza bakarra*», EE moderno bati entzuten zaio oso errez gure hizkuntzak berez desagertu egin behar badu inongo bortizkeriarik gabe, berak ez duela inolako bortzarik egingo bizi dadin. Hori esana izan da duela gutxi. Hori jarrera postmodernoa da, baina jarrera postmoderno honek egiten du jarrera politiko zapaltzaile baten ohea, dudarik gabe, nere ustez.

Herri Batasunarengan nik kritikatzeko dudana ez da horrenbeste gaur esan dezala behar bada hauteskundeetan parte hartu ondoren instituzioetan parte hartu behar dela, nik Herri Batasuna ikusten dut lotuta formulazio ideologiko zaharkitu batekin. Esan nahi bait da, diren egiazko zapalkuntzak eta erreprezioak herri osoa iraultzara bultzatuko dutela, abangoardiaren gidaritzapean.

Krisiaren gizarte honetan, alderantziz, zapalkuntzak erreflexu insolidarioak eta erreakzionarioak sortzen ditu usu, eta hau ez da aski kontutan har-

tzen. Ezin daiteke esan zapalduak nahitaez bildu beharko garela; langabeziak eta miseriak bultzatzen duten langileriak goiz edo berandu guztiz bat egin behar duela euskaldun gisa zapalduta gaudenekin, borroka iraultzaileen bidez hau botatzeko.

Guzti hori nik nahiko nuke egia izan baledi. Baina gaurko gizartearen, gauzak hola formulatuta, ez du sibiliterik laster egia izateko. Nere ustez, aipatutako balore modernoak, postmodernoak, kontutan hartu behar dira, bizi eta borroka dezagun. Ez dakit hori zein puntutaraino kontutan hartzen den formazio horretan. Eta politika oso konkretu batean sartzen ari gara.

Adibidez, rock fenomenoaren aurrean egindako holako gurtze akritikoa ez zait iruditzen egokia. Aldiz, irriti libreen inguruan diren espresio bide berriak, guztiz kritikoa, eta kontestatarioak baita ere gure barnean, etorkizuna daramatela iruditzen zait. Nere kritiketan hortik joko nuke nik.

Eusebio Osa: kritiketan politika praktikoaren aurretik joatea normala da

Modernitatea kritikatzeko dugula eta behar bada gero gu ere...? Nik modernitatea kritikatu egiten dut, modernitatearen arrazoina, baina ez dut ukatzen. Bestalde, eskubian dudana Beltzarekin ez naiz politikoki identifikatzen. Orduan, nere jarrera modernitatearekiko dialektikoa da, eta esposizioan garbi utzi dut nere ustez modernitatearen alde batzuk positiboak direla eta beste batzuk negatiboak, munstro aurpegia ere agertzen duela.

Bestalde, normala da desfase bat egotea, alde batetik politiko mailan eta beste aldetik erreflexio mailan. Mailan honetan beti aurretik joango garela uste dut kritikak egiterakoan, eta politika praktikoaren mailan beti atzetik. Desfase hau ere nahiko berezkoa da, eta horrela izango da beti.



Publiko arteko galdera

Joxek zerbait azaldu du hizkuntzari buruz, baina gehiago zehaztea nahiko nuke. Hain zuzen ere, hizkuntz komunitate minorizatuen prozesu historikoan modernitateak ze nolako papera jokatu duen.

Joxe Azurmendi: Estatu liberal ilustratuak denak uniformatu nahi ditu


Uler dezagun Modernitatea beti izen propio gisa, historiako aldi jakin bat bezala, XVI. mendetik XIX.era datorren hori. Fase desberdinak izan ditu eta une berean oso kontradiktorioa izan da bere baitan. Baina trazo jeneraletan esan daiteke linea garbi bat jarraitzen duela. Adibidez ernazentistek latinez idazten dute, justu latin erdiarotiar «*barbaroaren*» kontra latin klasikoa berpistu dute eta latin klasikoa-ren apologia handiak idatzi, Lorenzo Vallak adibidez.

Baina horiek berek eta une berean, hizkuntza vulgareak lantzen dituzte eta beraien apologiak egin, Italiako Hiri-Errepubliketan nahiz Espainia eta Frantziako Gorteen inguruan. Gaztelaniaren defendatzaileetako bat euskalduna izan da, Malon Etxaidekoa, Santa Magdalenaren biografoa. Eta gure Lizentziatu Pozas apologistaren seme jesuita espainolaren apologista izan da.

Baina euskal literatura bera horrelaxe hasi da, Etxepareren liburuarekin, barrukoa euskaraz eta titulua latinez. Gortearen inguruan hasten da eta hala jarraitzen du Leizarragarekin. XVI. eta XVII. mendeetan monarkiak bere familien inguruan estatu nazionalak biltzen ari dira, eta estatu nazionalen prozesu berean hizkuntza nazionalak ere garatuko dira, latina elizarentzat geratuz. Hor oraindik indibidualismoa da nagusi, ernazentistak horregatik dira famatuak, eta estatuak oraindik ez daude gero izango duten potentzian.

Estatu ilustratuak dena kontrolatu nahi du bere barruan

XVIII. mendean estatua kanpo aldera nahiko asegaratua dago, eta bere barruan hasiko da zentraliza-



zioa eta kontrola indartzen. Estatu Ilustratuak dena kontrolatu nahi du bere barruan, arrazoiaren botereak hori eskatzen du, hizkuntza ere kontrolpean eduki nahi du, eta horrela sortzen dira, esate baterako, Hizkuntzaren Erret Akademiak, hizkuntza ofizialaren gorazarretan. Euskara, Nafarroako Gortea galtzean lehen babes gabe geratu bazen, marginatu ezezik pertsegitu egingo da orain. Borbondarren politika zentralista ezaguna da.

Okerrena da, eskolaren jeneralizatzearekin koinzitzen duela. Lehenago apenas egoten zen herrietan eskolarik. Eta gero, liberalismo iraultzaileak, demokratikoak, berdin eta okerrago jarraituko du, arrazoiaren, progresoaren eta modernaren izenean beti. Monarkia kendu eta Errepublika nola legitimatzen da? Herriaren borondate orokarraren izenean. Kurioso da, borondate orokar horren interpretazio latinoa, ez anglo-saxoina, Rousseau baitan hasita, oso eliztiarra dela, gorputz mistikoaren antzera ulertuko dela.

Rousseau ez zen alferrik jatorri kalbinistakoa, eta borondate orokar hori azkenean Ginebrako elizaren gorputz mistikoa izango da. Orduan, Errepublika liberal ilustratuaren barruan denak Eliza baten antzera bateratu, berdindu, anaja bihurtu, uniformatu egin beharko dira. Diferentziak «*desberdintasunak*» direla ulertuko da, heresiak direla, eta Errepublikan denek berdina izan behar dutenez...

Estatuak hizkuntza bakar batean eraikitzen du dominazio sistema, diferente direnak desagertaraziz.

Machiavellok teorizatu zuen menperatuaren hizkuntza desagertaraztea

Iraultza Frantsesak berehala hartu ditu neurriak «patois» deitzen zituztenak itotzen eta errepublikano denak frantses bakar eta berdinean berdintzeko. Ez bakarrik hizkuntzak, Robespierren dekreto bat irakurrita nago, oso dekreto polita: Strasbourgeko emakumei alemanez jaztea debekatzen zaie, orain folklorikoak esaten zaien jantziak ziren orduan normalak, eta beste andre frantses guztiak bezala jazteko.

Guzti honetaz badaude liburuak, ikusi nahi izanez gero: Balibar-Laporten *Burguesía y lengua nacional*, adibidez, Avance Barcelonakoak argitaratua. Frantsesez badago beste bat Gallimard-en, autore talde-txo batena, *Une politique de la langue. La Révolution française et les patois*.

Estatuak hizkuntza bat hartzea bere tresna bezala, gero hartan inposatzeko bere eskola, hezkuntza eta guzti hori, dago alde batetik, dominazio sistema baten eraikuntza. Eta bestetik dago, alderantziz, diferente direnak desagertaraztea.

Kontsumismoari lotzen zaion ekologismo bigun hori, gure gizarte triste eta zapaltzaile honen parte bat da». Beltza.



Oso goiz deskubritzen da aipatzen dugun hau. Machiavello ere ohartuta dago, artikulutxoren batean idatzi nuen, herri bat konkistatzen denean lehenengo begiratu beharrekoa dela ea konkistatzailearen hizkuntza berdinekoa den ala hizkuntza diferente-koa. Eta esaten du: berdinekoa baldin bada, orduan neurri batzuk aipatzen ditu: desterratu pila bat kanpora bidali behar da, inmigrante jende pila bat eraman bertara bizitzera, hau da, inbaditu egin behar da, noblezia dekapitatu behar da eta kanpokoak jarri...

Liburu hori Nafarroa konkistatu eta urte bat edo bitara idatzi zen, eta badirudi Fernando Catolicoak zer egin zuen ikusi eta Machiavellok ikasi egin ziola. Nahiko zaharra da, beraz.

Publiko artetik galdera

Ez al dugu ingurugiro mailan, ekologian, jasaten modernitatearen ondorioz larriena? Horretaz gutxi mintzatu zarete. Ez al da industriaren garaipena ondorioz gogorra Euskal Herrian ere?

Beltza: gizarte postmodernoetan gehienbat ekologiarren kontzeptu kontsumista ikusten da

Baina beti bezala postmodernitatearen kontrazio guztiekin. Modernitateak sortu du hemen ezagutzen dugun paisaia industrial, bere ondorio galgarri guztiekin. Ekologia agertzen denean, bada ekologiarren bi kontzeptu, behar bada.

Lehen kontzeptua, guztiz subertsiboa: **beste modu batez produzitu behar dela**, eta kontzeptu subertsibo honek suposatzen du gizarte iraultza bat, politikan gihartuko den mugimendu iraultzailea.

Gure gizarte postmodernoetan gehien ikusten den ekologiarren kontzeptua da kontzeptu kontsumista, hau da: norberak esijitzen du aditiborik ez, produktu freskoak, gauza garbiak, ingurugunen garbia... guzti hori norberak esijitzen du bere burua errealizatze-ko. Baina gero, hortik aparte nola produzitzen den, zen-

tzu orokor batean, bost axola.

Eman dezagun: lantegietan armak fabrikatzen baldin badira garbiki, eta honen trukez baldin bada diru aski berdeguneak egiteko eta hortik footing egiteko, jendea futitzen da holako gerlak baldin badira Iran eta Irakeko beltzen artean, jendeari berdin zaio beltzak edo antzekoak baldin badira. Eta kitto.

Kontsumismoari lotzen zaion ekologismo bigun hori, gure gizarte triste eta zapaltzaile honen parte bat da. Eta orohar, dena guztiz trajikoa da. Baina gizarte honetan trajikoa ez da batere trajikoa, norberari tokatzen ez zaion neurrian. Begira Txernobilen gertatu denari: Txernobilen prolema nagusia da hemendik berrogei urtetara behar bada mila minbizi gehiago ikusiko dela Mendebal Europan, eta niri suertatzen bazait holako minbizi bat? Baina nuklearraren inguruan han eta hemen nola egiten den produzioa, eta nola dagoen lotuta armamentuarekin eta... azterketa hori bakan batzuek egiten dute. Hori da postmodernismoaren aurpegi bikoitza, eta guztiz arriskugarria.

Publikoaren arteko galdera

Azkoitiako Zalduntxo edo «Caballerito» haiek nola kokatzen dituzue orain artean aipatutako prozesu horretan?

Joxe Azurmendi: anbiguo izatea eta kontraesanean egotea bi dira

Altuna Roussearen oso laguna zen.

Postmodernoa puntu batetan naiz ni, eta da, munduan dagoen dena anbigua dela. Orduan, arrazoizkotasuna, ilustrazioa, progresoa eta gauza horiek ez dira negatibo hutsak, anbiguoak dira.

Azkoitiako zalduntxoak, ehunetik laurogeitan positibo

Azkoitiako Zalduntxoei buruz galdera eginda, ehuneko laurogeitan positibotzat jo izan dut momen-

tu horretan, Euskal Herriko historiaren momentuan erreazio bat egotea eta kulturaren alde zerbait arduratzea. Kointziditzen du jesuitak kanporatzearekin eta...

Holako parte dexente bat, gero, ez beraien espezi-fikoa zelako, baizik eta gizarte haren espezi-fikoa zelako, nik negatibotzat joko nuke. Lehenengo: ideologiari ihes egin diote deabruari bezala, teknokrata-teknokratak ilustratuen artean lehenengoak azkoitiarrak izango dira, zeren beste denek elementu handi bat ideologikoa izan dute beti, eta horiek ihes egin diote. Arrazoiak badakizkigu denok: Inkisizioaren beldurra eta abar. Dena dela, aukera hori eraman dute.

Bigarren: bazuten Euskadi berriaren edo hiru probintziaren, agian laurena ere bai, kontzientzia piska bat, eta baita Ameriketako euskaldunena ere. Euskararena, apenas. Hutsuneak haundiak dira.

Eta azkenik, zalduntxoak ziren, eta esate baterako balet eskolak zeuzkaten, baita mineralogia ere, beren eskolatxoan, eta edukazioro oso kultista, selekto, aristokratikoak ziren. Ez dakit nola baloratzen diren gauza horiek. Erdizka ondo eta erdizka gaizki...

Printzipioz jarrera postmodernoa ez dira arriskutsuak

Neuk jarraituz, iruditzen zait, adibide hori atera denez, momentu honetan euskaraz literatura gazte edo berri horretan produzitzen den gauza pila bat seguru asko eskema postmodernoa batetan sartzen dela. Esajerazio batekin esateko, Bernardo Atxagagandik behera, dena. Baita erdaraz ere, hemengo inguruko jendeak produzitzen duen asko, halakoxea dela, edo behintzat itxura hori egiten duela, Savaterrandik gora. Beraz, asko dagoela.

Gero badago, gauzak garbi dauden neurrian, mutur batetan nahi baldin bada ETA dagoelako eta beste muturrean Gobernu Espainola. Bi muturren artean «mundua». Ze erizpide daude aipatu nahi ez ditudan autore horien artean, postmodernoa-edo omen direnen artean, ze kriterio daude bereizketa bat egiteko, bi mutur horietako zeinen aldera dauden epaitzeko, probetxugarri zeini zaizkion, onartuz nahitaez anbiguitate batetan esistitu beharko dutela.

Adibide edo irudi hau erabili izan dut: Portugalen iraultzara fusilen puntan krabelinak jarrita atera ziren, baina iraultza fusilek egin zuten eta ez krabelinek. Orain, fusil haiek oso ondo zeuden krabelin batzuekin. Hemen ere iraultza ez du egingo postmoderniak, baina iraultzari ere estetika piska bat ez kentzeko... Errusian ere Maiakowski bat zegoen Lenin ondoan.

Esan nahi dut, ez dudala uste, postmodernia egiten ari dena, mundu berri bat eraikitzea denik. Baina bizitza berritza dizaguketen indarren osagarri,

bai, izan liteke zenbait kasutan. Noiz bai, noiz ez, hori da kontua. Baina, printzipioz, jarrera eta pentsaera postmodernoak ez nituzke arriskugarri bezala bakarrik, edo negatibo bezala, ikusiko.

Anbiguoia noiz pasatzen da borroka estetika izatetik arriskutsu izatera?

Anbiguitate guztiekin, literatura batek, musika batek, arte batek, estetika bat sor lezake borroka horren munduan. Anbiguoia da, beraz arriskutsua da, oso ondo engaina lezake horrek. Noiz hartu genezake hori engainagarritzat, justu bestearen, aparatoaren tresnatzat? Zeren aparatoak, printzipioz pentsamendu modu hori mespretxatu egin beharko balu ere, beti ahaleginak egingo ditu, eta askotan lortuko du, postmodernia asumitzeko, ekologismoarekin egiten duen bezala.

Beste adibide bat: Eliza kristaua Erromako inperioaren aski kontra sortu zen, eta Inperioak hirurehun urtetan pertsegitu egin zuen, baina egun batean inperatore azkar bat konturatu zen, «askoz ere hobe duk eta apezpikuak geure ondoan jartzea pertsegitzea baino», eta harrez gero daukagu daukagun Eliza, eta apezpikuak gobernadore egin zituen.

Hori postmoderniarekin gerta liteke berdin. Zeintzuk izan litezke kriterioak? Nik kontradizioarena jarriko nuke. Adibidez, norbait etortzen baldin bazait Euskal Herrian dauden borrokak eta biolentziak eta abar eta abar kondenatuz, baina arrazoizkotasunaren izenean, zibilizazioaren izenean eta abar, hori nerretzat kontradizioan ari da: postmodernoa alde batetik, eta hain zuen arrazoizkotasun tradizional eta firme eta teknokrata eta horren aurkako filosofia batetan, beste guztian neonitzscheano izanez, baina beste alde batetik Estatuaren arrazoin tradizionalak direnak erabiliz justu Estatuaren etsaiaren kontra. Hori kontraesan batetan dago, ez anbiguitatean.

**Gabriel Aresti,
A. Villasante eta
J. Azurmendiren
erdian.**



Publikoaren artetik

Abots batek eskatzen du literaturaren munduaz egin diren aipamenak bezala ekologismoari buruzkoak eta gehiago zehazteko, Joxek azaldu dituen zenbait inpresio, esate baterako, gehiago konkretatzeko.

Joxe Azurmendi: gaur idazle «engagé» bat ez omen da literato

Oraingo euskal literaturari, kondizionatuki, postmoderno baderitzot, hobeto arrazonatu beharko nuke, baina orain ez naiz horretarako gauza sentitzen. Literaturaren kontzeptuaren puntura mugatuko naiz. Kontraste batek agian lagunduko du esplikatzeko. Orain dela urte batzuk literato on batek «engagé», konprometatua edo, izan behar zuen. Gaur hori dena igoal idazle bat da, ez omen da literato bat. Bernardo Atxaga. Bernardo Atxagak kondenatu egiten du idazle «engagé» bat, agian ez du esaten horrek pertsonalki ez daukala hori egiterik, baina berak espreski esaten du «hori ez dut, hori ez dut nahi, hori ez da literaturaren eginkizuna», esate baterako.

Mirande, Txillardegia, Aresti eta Atxagaren posizio ezberdinak konstatatu

Eta ez da bere aukera pribatu pertsonalaren kontua bakarrik. Bernardo Atxagak ez du enpatxurik izan, bestelako aukera edo planteamenduren batzua agertzen zizutenak, edo genituenak, edo genituela uste zizutenak, zenbat estimatzen zituen erakusteko, hau da, jende hori (hau), zer bai, eta hementxe, eta hain zuzen-zuzen kuasi-faxistatzen edo salatzen eta ridikuloan jartzeko. Ni neu, adibidez, aspalditxoko artikulu batetan. Eta inon ez du erakutsi harrez gero eritziak aldatu dituenik, dakidanik behizat, idatzia eta publikoki, salaketak idatziz eta publikoki egin zituen moduan.

Baina orain horrek ez digu inporta, bere problemak berari utziko dizkiogu. Esaten ari naizen bezala, ni neu ez naiz kapaz, literatura postmodernoaz beste horrenbeste pentsatzeko, alegia, sistemaren aliatu dela, beste gabe, eta «objetiboki» etsaia dugula, batzuen mintzamoldea erabiltzeko. Baina diferentziaren bat egongo da, ezta, Mirande eta Txillardegia

eta Arestiren eta Bernardo Atxagaren artean, gizartean situatzeko beren moduan?

Aparte, gero, ongi, gaizki ala gaitzerdi iruditzen zaigun. Ni ez naiz inoren juez. Baina gutxien-gutxienez diferentziak konstatatu eta gertatu den prozesuaren kontzientzia izan beharko dugu, halere. Prozesu hori egon dela, ordea, eta diferentzia handia dagoela, eta aldaketa horrek baduela barnean bere signifikazio soziala ere, nahiz ez beti unibokoa izan, niri begien bistakoa iruditzen zait. Unibokoki balortzen ez badakigu ere, fenomenoaren beraren kontzientzia bederen ez daukagu zergatik urardo bihurtu.


Baudelaire-rekin literatura postmodernian sartu

Kontzeptuak argitzen hasita, literaturan, edo estetika orokorrean, edozein normaren haustea postmodernia bezala definitzen da. Habermasek, hain zuzen, pinturan 1900. ingurura arte eramango du, literaturan Baudelaire-rekin jada postmodernia hasiko litzateke. Zer hasten da hor: kreazio librea, norberaren gogora, jeneroenak eta klasikoak izan diren norma literatura produzitzeko puskatuz. Gero mila modutan egingo da: surrealismo, dadaismo, etab.

Bueno, hori praktikatzen da. Literatura berriean, euskaraz, oso jenero mixtoak praktikatzen dira, eta apropos, hori da gaur egun praktikatzen dena, erdi lirika, erdi narratiba... Ahalik eta lotura gutxienak gaitetan zein formetan. Eta gainera beti ere norberaren mundutik aurrera. Ez da «engagé», ez tesi bat eduki nahi du, alderantziz, ez du eduki nahi, eta hein batetan kreazio librea izango litzatekeen hori da. Hori saioarekin ere gertatzen da. Behar bada, kuriositate bezala: filosofo-filosofoek, akademiakoek, kristoren tostoiak idazten dituzte; postmodernoek, saioak.

Beltza: urrats guztiak indibidualismoaren barnean

Zentzu beretik ibiltzeko, euskal kantagintza aipatu nuke nik. Guk ezagututako euskal kantagintza zen «Mendi-Mendiyan» eta «Itsasoa laño dago». Gero etorri zaizkigu kantari moderno horiek, «engagé» zirenak, konprometituak, langilea naiz, euskalduna naiz, Herriak ez du barkatuko. Gaur egun berriro entzuten dugu «intimismoa», hau da, «herriarekin ko-



Orain daukagun kantagintza «engagé» ia bakarra erdaraz egiten den «rock radikal vasco» hori da. Eta rock radikal horretan asko slogan da, eta beste gauza batzuk errebolta hutsak dira, inongo zentzu historikorik gabeak, hau da «job!».

Hau da, ez dakigu ongi gazteak erreboltatzen diren beste mundu berri hobea nahi dutelako ala oraingo munduan kotsumitzeko ez dutelako dirurik, ez txupa erosteko, ez motorra erosteko... Ez dakigu ongi zergatik den errebolta batzutan, gauzak nahastekaten dira, eta hori postmodernismoa da.

Eta postmodernismoan, zoritxarrez, beti ibiltzen da beti oso aurpegi «cool» —pasota, nik horretaz paso lasai— eta horrekin batera ibiltzen da arrazoiak esplikatzeko ez duen bortizkeria-espektakulua, batez ere telebistak ematen duelarik. Biak batean ibiltzen dira.

Nolabait diferentzia egiteko, nik dena indibidualismoaren barnean ikusiko nuke. Joxek aipatu duen Errenazimendutik hasita, indibidualismoaren barnean ikusiko nituzke urratsak. Modernoan indibidualismoa oraindik kontsideratzen da historia egin behar duen talde baten barnean, eta nahiz nazio batean naizenean nahiz klase bateko partaide, ideologiak eta borrokak eramaten dira talde horren barnean, eta jendea kontrajartzen da eskuin-ekzter, proletargo-nagusiak, kolonizatu-zibilizatuak...

Orain ez, indibidualismoak beste pauso bat eman du, eta norbera kontsideratzen da norbera, puntu. Baina norbera eskubide guztiekin bere burua behar duen bezala desarroilatzen, eta hori ez da posible, lehen esan dudanez, Estatuak ez badu segurtatzen menperatuen gaineko zapalkuntza eta menperatuen hustiatzea. Hala emango nituzke pausoak, oso eskematikoki, noski.

munikatzeko intimismoa jartzen diat aurretik, ez diat gehiago holako gauza handirik jarriko, Herria, Iraultza...». Hori jarrera kultural bat da, baina baita ere gizarteari doakion jarrera, eta gizartearen aldakuntzari doakion jarrera.

«Orain daukagun kantagintza 'engagé' ia bakarra erdaraz egiten den 'rock radikal vasco' hori da».